

Imanol Badiola, MU Karting txapelketako azkarrena

2017/12/15

Atzo, abenduak 14, ospatu zen MONDRAGON UNIBERTSITATEko Karting Txapelketa Gasteizko Karting Indoorean.

3 fakultatetako 20 ikaslek parte hartu zuten guztira. Partaide guztiak bi taldetan banatu ziren eta 10'ko beroketa tandarekin hasi ziren. Bertan, kartingen funtzionamendua eta ibilibidea ikasi zuten.

10 minutuko beroketa eta gero, 10 minutuko sailkapen fasea jokatu zuten. Hala, tanda bakoitzeko 4 azkarrenak finalerako sailkatu ziren zuzenean.

Finalean, talde bakoitzeko lau gidari onenak lehiatu ziren, sailkapen fasean lortutako denboren arabera irteera ordena zehaztuz.

Bukaeran, Imanol Badiola, GEPko ikaslea izan zen gidaririk azkarrena.

Sailkapena:

- 1- Imanol Badiola Aiestaran
- 2- Ibon Leiza Garrido
- 3- Josu Odriozola Epelde

Zorionak eta mila esker parte hartzaile guztiei.

